

## UDAL BATZARRAREN BILERA AGIRIA

### BILERAREN EZAUGARRIAK

**Bilera Zkia:** 07/2007  
**Data:** 2007ko urriaren 18a  
**Eguna:** osteguna  
**Ordua:** 19:30etan  
**Lekua:** Udalaren Bilera Aretoan

**Bilera mota:** Bilera berezia.

**Deialdia:** 2007ko urriaren 16an

### PARTE HARTZAILEAK

#### LEHENDAKARIA:

Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena

#### ZINEGOTZIAK

Mikel Garmendia Sukia

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

Maixa Olano Gorostidi

#### IDAZKARIA:

Iñaki Sainz Paredes

#### AZALDU EZ DIRENAK:

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

### **Aztergaien zerrenda:**

- 1.- Aurreko bilerako agiria onesteko proposamena (2007-07-03koa).-
- 2.- Alkate Dekretuen berri ematea.-
- 3.- Ostatu-Etxeberri inguruko urbanizazio proiektuko lanen esleipena.-
- 4.- Lantalde organikoa eta lanpostuen zerrenda egokitze proposamena.-
- 5.- Batzuk.-

Alkatetzak aurrez hartutako erabakiari jarraituz, goian laburbiltzen dena, segidan azaltzen diren pertsonak, aipatu den leku eta datan batzarraraten dira, bere izenaren alboan agertu diren ordua azaltzen delarik.

### **1. PUNTUA.- AURREKO BILERAKO AGIRIA ONESTEKO PROPOSAMENA.-**

Deialdiarekin batera honako akta agiria banatu zaie zinegotziei:

- 1) 2007.07.03ko ez ohiko bilkura bereziarena (Antolaketarako bilera).

Alkateak akta agiriaren testuari oharririk egin nahi zaizkion galdetzen du.

Oharririk egiten ez direnez akta agiria, dagoen moduan onartzen da ahobatez.

### **2.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA**

2568/1986 Erregelamendua, 1986.eko azaroaren 28koa, Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duena, 42. artikuluan agintzen duena betetzeko, Osoko Bilkura honi, azken ohiko bileraz gero, Alkatetzak hartu dituen erabakien berri ematen zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

Atal honetan, ondorengo zenbakiekin egindako alkate dekretuen berri eman da:

2007/25etik 2007/36ra

Eta jakinaren gainean geratzen dira zinegotziak.

### **3.- OSTATU-ETXEBERRI INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUKO LANEN ESLEIPENA.-**

Gaintzako Udala Ostatu eta Etxeberri eraikinen jabea da.

Higiezin hauek bota eta horien ordeztu etxebizitzak eta herri ekipamendu orokorrak bertan jarri nahi dira, lan hauek egiteko EREIN programa bidezko dirulaguntzak lortu dira, baino presazkoa da lanei ekitea hauek galdu ez daitezen.

Alkatearen erabaki bidez higiezin hauen eraisketa lanak esleitu dira, honen segidan, bi higiezin hauen hiritartea edo urbanizazio lanak burutu behar dira.

Udalaren esku dago Pedro Etxaniz Rebaque goi mailako arkitektoak eta bere taldeak aurkeztutako "Gaintzako Ostatu-Etxeberri inguruko hiritartze egitasmoa".

Egitasmo hori oinarri hartuta, hiru enpresei eskaintza ekonomikoa aurkeztea eskatu zaie.

Kontratuaren munta kontutan hartuta eta udalaren aurrekontuan adinako kreditua egotzita dagoela jakinda.

Jasotako lan proposamenak, epeak eta eskaintza ekonomikoak kontutan hartuta.

Bildutakoen ahobatez, **ERABAKI DA:**

**LEHENENA:** Pedro Etxaniz Rebaque-Ana Crespo Amado eta Javier Reguera Ardanzak osatutako goi mailako arkitektoen taldeak idatzitako egitasmoan jasotako Gaintzako Ostatu-Etxeberri inguruko hiritartze egitasmoan jasotako **lanak esleitzea, Construcciones Uzturpe SL.**, aurkeztutako eskaintza ekonomikoaren arabera. (2007ko urriaren 17an aurkeztua).

**BIGARRENA:** Kontratuaren prezioa, BEZa barne BERROGEITA HAMAR MILA BERREHUN ETA HOGEITA HIRU KOMA HIRUROGEITA HEMERETZI (50.223,79.- €) EUROtan finkatzea eta exekuzio epea berriz 5 astetan finkatzea. Lanen ordainketa helburu honekin, inbertsiontako atalean, udalaren aurrekontuan jasotako kontusaila berezitik egingo da. Lanen ordainketa obrak bukatutakoan zertifikazio bakarrarekin egingo da.

**HIRUGARRENA:** Lanak hasi aurretik Construcciones Uzturpek honako dokumentuak aurkeztu beharko ditu Udalaren bulegoan:

- a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharreran egunean dagoelaren agiria.
- b) Foru Ogasunarekiko betebeharreran egunean dagoelaren agiria.
- c) 2.000 Euroko berma.

**LAUGARRENA:** Parte hartzaileei eskerrak emanaz, erabaki honen berri ematea, adieraziz bere kontra egiteko bidezkoak diren helegite moduak eta epeak.

#### 4.- LANTALDE ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA EGOKITZE PROPOSAMENA.-

2007ko maiatzaren 24an egindako bileran Udalbatzarrak 2007. urterako Gaintzako Udalaren lantalde organikoa eta lanpostuen zerrenda, 2007. ekitaldirako onartu zituen.

Legeak galdatu bezala, onarpen honi buruzko iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren, hain zuzen 2007ko uztailaren 5ean.

Eusko Jaurlaritzako Toki Araubidearen Zuzendaritzak, iragarkia aztertu ondoren, Euskadiko Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen araudiarekin (343/1992 Dekretuak, 207/1990 Dekretuko 4.2. artikuluari emandako idazkera berria) desados zela azaldu zuen idatziz eta horren zuzenketa egitea eskatu zion Udalari.

Bi erakundeen artean mezuak gurutzatu dira, ezen 7/2007 Estatuko Legearen onarpenarekin, langile publikoen oinarrizko estatutua onartzen duen oinarrizko legea alegia, Autonomia Erkidegoko araudia indarrean ote dagoen zalantzazkoa baita.

Dena dela, arazoarekin bukatzeko, lanpostuen zerrenda Eusko Jaurlaritzak argitutakoaren arabera egokitzea proposatzen da.

Eta bildutakoen ahobatez, ERABAKI DA:

**BAKARRA:** Gaintzako Udalaren lantalde organikoa eta lanpostuen zerrenda, 2007. ekitaldirako egokitzea Eusko Jaurlaritzak agindutakoaren arabera eta egokitzapen horiek jasota, berriro lantalde organikoa eta lanpostuen zerrendari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Eta bileraren helburua beteta, Alkateak bilera amaitzea erabaki zuen, arratsaldeko zortziak puntuan zirenean.

O.e.  
Alkateak

Idazkariak

Stua. Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena

Stua. Iñaki Sainz Paredes